

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1 h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar duzu, eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	70 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatiotako bat sobera dago**.

MAHASTIAK

Neguko mozketak udaberriko kimuen zain jartzen du mahastizaina. Duela bi aste egindako hotzak izoztu ditu langileak. Han-hemenka karroinaren ondorioz iraganiko galtzeak kontatzen dira. Mahats xurien % 10, biologikoan den lur puskaren % 50, edo beltz berezi honetako % 20. Hasteko, Irulegi jatorriko deitura kontrolatuan den arno-eremuan hilabete honetan aipu den gauza da. **1**

Azken urte hauetan, abarrak ninikaz betetzen hasiak dira pixka bat goizago, negu-bukaerako argi-izpiek eraginik. Horregatik, hormak jotzen duenean martxoko aste horietan desmasiak eragiten ahal ditu. Kimu goiztiarrak izoztuz gero, goizean goizeko eguzkiak ninikak erretzen ditu. **2** Hala ere, bigarren muskilak sortuko direnen esperoan jarraitzen dute mahastizainek.

Neguan fineziaz betetako lana eta epe luzerako proiektzioa eskatzen den lana dugu moxtea, mozketa edo moztea. Mahasti-zangoen aldaxken bideratzea du helburu. Zure mahatsondoari eman nahi diozun formaren arabera izango da mozketa. Etxalde batzuetan neguko lan hori garrantzitsuenetarik bat da. Momentu gako bat; presio handiko lana eskatzen duena, geroa baldintzatzen duelako. **3**

Hormatzeek udaberriko lana baldintzatzen badute ere, uda guzian mahatsen segipena segurtatzeko sasoiari tokia ematen zaio. Zango berrien landatzen, belarrak kentzen, aldaxkak zaintzen eta harien jartzen ibiliko dira. Udako eguzkiak larrua belztuko die, erreko. Kasketa eta eguzkiko betaurrekoen kolektzioa hasiko dute, bonet eta euritakoa hilabete batzuentzat utzirik. Galtzamatotz/Tixert versus jantzi polar/galtzerdi. Jantzi horien azpian, neguan, udaberriaren zein udan, zainak puzten ari zaizkie, beti puzten.

Maiz, udazkeneko lehen keinuak agertzen direnean, Irulegiko lursailetan bilketaren sasoiak pizten da. Neguko lan bakartia, udaberri eta udako taldekako lanaz gain, auzolanarekin dator udazkena. Traktoreek kutzak bete fruitu bukatzen dituzte egunak. Mahatsa lerroz lerro jasotzean, erritmoa atxiki behar da. **4**

Mahatsa ttinkatu eta dupa handietan ezartzekoa da emaitza. Batzuentzat kimikaz lagunduriko irakitea hasiko da; beste batzuentzat, aldiz, kimikarik gabeko lana egingen da. Arnotzen hasiko da mahatsa, edo ozpintzen... Mahastizain bakoitzak bere nahasketak egingen ditu. Xuri, beltz eta gorrian Irulegin nagusitu diren mahats motak bordeles beltza (tannat), axeria (cabernet franc), xuri zerratu ttipia (courbu blanc), izkiriota ttipia (petit manseing) eta izkiriota (gros manseing) aurkituko dira. Dastatzean, lurraren elementuak kontuan hartuko dira (eskistoa, buztina...). **5**

Euskal Herriko etxaldeetan atzematen ahal dira lehengo mahastien aztarnak. Orain, jende aberatsei zuzendutako luxuzko ekoizpena bilakatu bada ere, tokiko arnoen probatzeak badu ganora. Lur-lan eta fruitutze galant horren ondotik produzitzen den erotzeko jus hori etxalde ezberdinetan ekoizten balitz, zenbat arno, istorio eta gustu desberdin izango genituzke?

GUELLE, Pauline. *Berrria*. 2021-04-21.
Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Egun fisiko gogorrek, mahastien arteko solasek eta azken eguneko pesta handiek dituzte lursail ezberdinetako langileen orduak markatuko.
- B. Lekunberritik Bidarraira eta Arrosatik Baigorriara osatzen duen lauki luze horretan bizi diren jabe anitz hortaz ari dira.
- C. Fenomeno horren aitzinean su-sistemak antolatzen dira eremuka, ke-laino batek babes dezan mahatsa eguzki-izpietarik.
- D. Hor ere hotzak badu bere eragina, langileak negu hotzean, xedarra-aizturak eskutan, abarrez abar ibiltzen baitira: klaxk-klaxk-klaxk.
- E. Horretara iristeko, eguzkira buruzko orientazioa, haizeari eta aro txarrari babesa eta zolaren kalitatea zaindu beharreko elementuak izanen ditu mahastizain gazteak.
- F. Hormak ekar diezazkiekeen kalteak saihesteko, zonbait mahastitan estalkiak jartzen hasiak dira.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak					

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau **ez da jaso behar erantzun-orrian.**

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ORDENA SOZIALA

Bizi dugun testuinguru sozialaren gaineko analisia partekatu nahiko nuke, horren eraldaketari nire esparrutik ekarpen politiko bat egitearren. Orokortasun hori gainditzeko egin beharreko analisiak hartzen duen dimentsioaren jakitun izanik, eta bere konplexutasunean ez galtzearren, nire ekarpena emakumeon auzitik abiatuko dut. Gaurkoan, konkretuki, garrantzia hartu duen eta hartuko duen gai baten inguruan arituko naiz: lan asistentzialak; edo, bestela esanda, lan-merkatutik at egin ohi diren lanak.

Lan asistentzialak bi multzo nagusitan banatuko nituzke: osotasunean betetzen duten funtzioaren arabera. Alde batetik, lan-indarraren erreprodukzioa bermatzeko funtzioa betetzen duten lanak daude: otorduak prestatzea, etxea deskantsurako eroso mantentzea, garbiketa-lanak, erosketak eta abar. Bestetik, mendekotasunak dituzten pertsonen biziraupena bermatzeko funtzioa betetzen duten zaintza-lanak ditugu: familiako haurrena, pertsona nagusia edo bizitzako oinarrizko jarduerak autonomoki egiteko ezintasunen bat duten pertsonena. Lan horiek guztiek bi ezaugarri nagusi dituzte: batetik, ezinbestekoak dira banakoaren zein gizarte-antolaketaren biziraupenerako; eta, bestetik, lan-banaketa sexualaren arabera egituratuta daude.

Lehenengo ezaugarriari helduta, osotasunean jarri behar dugu arreta, nola eta noren lanaren kontura erreproduzitzen diren jakiteko. Gizartearen biziraupena unean uneko ekoizpen moduaren arabera da. Egungoak forma kapitalista du, eta langileon lan-indarra boterea dutenen kapital-metaketara bideratzen da. Fenomeno horrek ez du etenik, sistemak etengabe duelako eskuragarri lan-indar esplotagarria. Halaber, kapitalak ezinbestekoa du lan-indar hori beti efizientea izatea, eta, horretarako, beharrezkoa du, orobat, langileok gure lan-indarra berritzeko janaria erostea eta prestatzea, behar afektibo zein psikologikoak asetzea, min fisikoak baretzea eta abar. Azken horiek ere lana dira, baina ez dute gainbaliorik sortzen, ez dira produktiboak kapitala metatzeko; ezinbestekoak dira, ordea, langileak etengabe lan-indarra saltzen jarraitu ahal izateko. Hortaz, lan-indarraren erreprodukzioa bermatzeko funtzioa duten lan horiek dira sistema kapitalista betikitzen dutenak.

Berdina gertatzen zen hasieran aipatutako mendeko pertsonen zaintza-lanekin; une jakin batean produktiboak ez diren pertsonen ardura langileok hartzen dugunez, sistemak lan horien kostua aurrezten du, eta etorkizuneko lan-indarra bermatzen.

Gainera, kontuan hartu behar dira, era berean, lan asistentzialen fenomeno horrek testuinguru bakoitzean pairatzen dituen aldaketak, inplikazio zuzenak baitituzte lan horien egileengan eta hartzaileengan. COVID-19ak ekarri duen pandemia-egoera eta azaleratu duten krisi ekonomikoa dela eta, alor ekonomikoen, sozialaren eta politikoaren berrantolaketa gertatzen ari da. Horrek ekarri du lan-indarraren esplotazioan formak perfektionatzea (lan-baldintza malguak, kaleratzeak...), eta orain arte eskaintzen ziren zerbitzuetako askoren pribatizaziorako joera. Horietako asko bertan behera gerarazi dituzte, edo beste batzuekin ordezkatu.

Finean, kapitalak fase berri hau erabiltzen du gainbalioa forma berri baten bidez eskuratu ahal izateko. Alabaina, lan asistentzialak etxean konfinatzen ditu ezinezkoa zaiolako zerbitzuen eskakizun ekonomiko eta sozial berriak bere gain hartzea. Horrela, egituratu den lan-banaketa sexualaren poderioz, ardura horiek emakume langileen gain geratzen dira, haien isolamendu sozial zein politikoa indartuz eta haienganako zapalkuntza erreproduzitzen.

Horren aurrean, lan asistentzialen sozializazioa borrokatzea dagokigu. Baina ez forma merkantilizatua har dezaten, horrek ez baitio jendarte guztiari bermatzen zerbitzu horietarako irisgarritasuna, eta horrek ez baitu ekarriko sexuaren arabera lan-banaketa amaiara. Sozializazioaz ari naizenean,

proletargoaren interesei erantzungo dien zerbitzuen antolaketari egiten diot erreferentzia; hau da, guztiontzako eskuragarriak izango diren kalitatezko zerbitzuez ari naiz, eta, zehazki, emakumeok lan-karga horretatik askatuko gaituen antolaketa sozialaz.

ETXEBERRIA, Olatz. *El Salto-Hordago*. 2020-I-27.
 Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

6. Zein da Etxeberriaren artikuluaen helburua?

- a) Ekarpinak egitea emakumeen arazoa konpontzeko.
- b) Egungo testuinguru sozialaren analisian ekarpinak egitea.
- c) Lan asistentzialetan genero-bereizketaren arrakala bistaratzea.

7. Etxeberriaren aburuz, funtsean zer egiten du lan asistentzialak?

- a) Gizarteari, modu batean zein bestean, zutik eutsarazi.
- b) Etxeko haurrak eta ezinduak zaintzeaz gainera, otorduak prestatu.
- c) Gizarte aurreratu bati balio erantsia eman.

8. Etxeberriaren ustez, lan esplotagarria eskura izateaz gainera, zer egiten du sistema kapitalistak?

- a) Gainbaliorik sortu ez arren, ezinbestekoak dituen jardunez arduratzen da sistema.
- b) Besteren gain uzten du gainbaliorik sortzen ez duten jardunen kostua.
- c) Gainbaliorik sortu ohi ez duten jardunak gainbalioa sortzeko bidean jartzen ditu.

9. Etxeberriaren ustez, zer ekarri du COVID-19ak gizarte-zerbitzuetara?

- a) Beste berrantolaketa bat, pribatizazioan oinarriturikoa.
- b) Lan-indarraren hobekuntza, perfektionatu egin da.
- c) Ordena berria zerbitzu askotara.

10. Etxeberriaren iritziz, zein izango da lan asistentzialaren aldeko borrokaren xedea?

- a) Sistema kapitalistak emakume langileen egitekoa bere egitea.
- b) Gizartearen eraldaketa, antolaketa soziala lortzea.
- c) Emakumearen isileko lan berezituari balioa ematea.

Ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

Oharrak

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

TESTU AIPAMENAK

1.

BOTERE JUDIZIALAREKIKO KONFIANTZA

Izaera bereko 5 errekurtsio jarri eta Gorenak 3 baizik ez onartzea arbitrariotzat jota, 6 urteko prozesu baten ostean, Estrasburgora jo zuten konpainia batek, Giza Eskubideen Europako Auzitegira, hain zuzen ere.

Beste 6 urteren ostean etorri da ebazpena: urratu egin zen enpresa horrek bidezko prozesu baterako duen eskubidea eta 16.600 euroko kalte-ordaina ematera zigortu du Espainia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatu duenez, kasu honetan "ez dago arrazoirik ondorioak justifikatzeko" eta bere eginkizuna ez bada ere auzitegi nazionalak emandako erabaki judizialak alderatzea, honako hau azpimarratu nahi izan du: "Auzitegi beretik eratorritako antzeko kasuetako erabaki kontraesankorrek" segurtasun-printzipioa urra dezakete eta "Botere Judizialarekiko konfiantza publikoa ahuldu".

Expansión, 2021-09-20
 Egokitua

2.

FILANTROKAPITALISMOA

Teknologia berriez eta globalizazioaz baliatuz dirutza izugarria egin ostean, Bill Gates eta beste aberats, ospetsu eta marka saldo handi bat munduko arazo handiei beren poltsikotik erantzun nahirik dabilta. Ekonomia globalaren ikuspegitik, fundazio "filantropiko" horiek estatuarenak diren alorretan ari dira: hezkuntza-sistema publikoa, klima-aldaketa, gerra edo herrialde pobreen garapen ekonomikoa.

Baina ez da filantropia, ez da karitatea: filantrokapistak lider etiko bihurtzen dira eta, bidenabar, kapitalismoa estatuaren gainetik jartzen; erraza da botere publikoa ekimen pribatua baino pobreagoa, atzeratuagoa eta inefizienteagoa gertatzen denean.

Frantzisko aita santuak ere eskandalagarria deritza karitatea negozio bihurtzeari. Baina zer egin behar dute herritar xumeek halakoetan? eskaintzen dizkieten abantailei ezikusi egin eta gizarte-aldaketa erabateko eta justuaren zain geratu?

GREEN, Michael. *Filantrocapialismo. 2009, <europapress.es> eta <theeconomyjournal.com>.*
 Egokitua

3.

ATE BIRAKARIAK

Goi-kargudunak sektore publikotik pribatura edota alderantziz inolako oztoporik gabe igarotzeko fenomenoari deritza ate birakaria.

Mugimendu horiek norabide batean eta bestean gertatzen dira, hau da, erakunde publikoetatik enpresa transnazonaletara eta alderantziz. Gero eta ohikoagoak dira toki, nazio eta nazioz gaindiko sektoreetan, eta botere politikoa eta botere ekonomikoa bereizten dituen muga lausoaren beste adibide bat dira.

Ate birakarien fenomenoak arazo garrantzitsuak planteatzen ditu demokrazia ordezkatzailarentzat, interes-gatazka larriak sortzen baititu publiko eta demokratiko batek lortu behar dituen helburuen eta enpresa multinazional handi baten helburuen artean, azken horren helburu bakarra bere onura maximizatzea baita.

GARAY, Ane. <omal.info>
 Egokitua

4.

OPIOIDEAK NORI?

Osasun Sailak opioide indartsuenen gaineko kontrola areagotu du, adikzioen igoera geldiarazteko. Erkidegoen artean adostu dutenez, ez da komeni min kroniko ez-onkologikoa duten gaixo eta pazienteei askapen azkarreko fentaniloa errezetatzea. Izan ere, zenbait erkidegotan opiazeoen gehiegikeria- eta adikzio-kasuek gora egin dute nabarmen.

Espainia eta Europako beste zenbait herrialde beldur dira neurririk hartu ezean, ez ote den errepikatuko hemen 2019an Estatu Batuetan gertatu zen osasun publikoko krisia: opioide indartsuenen eskutik, fentaniloa kasu, 500.000tik gora pertsona hil zirela uste da.

Kontrol eta jarraipen estuagoa behar dira, baina ahaztu gabe opioideak direla aukera terapeutiko bakarra gaixo askorentzat. Bizi-itxaropena inoizkorik handiena dugu eta jendeak duintasunez bizitzeko eskubidea du.

**GÜELL, Oriol. *El Pais*, 2021-10-01.
Egokitua**

5.

ESKUBIDEAK SARI

Galiziako hilketa homofoboan eraso gelditzen saiatu ziren bi migratzaileen egoera erregularizatzea erabaki du Espainiako Gobernuak, sari gisa.

Halako keinu propagandistikoak ez dira berriak. Oraingo honetan, jatorri senegaldarreko bi lagun "humanitatea" eta "konpromiso zibikoa" azpimarratu ditu Espainiako Gobernuak haien egoera legezatzeko. Horrelako adierazpenen atzean dagoen mezua oso arriskutsua da: berriz ere migratzaile onak eta txarrak bereizten ari dira, geratzea merezi dutela demostratzeraz behartuta daude. Izan ere, horrelako mezuek iradokitzen dute pertsonak migratzeko duten eskubidea, hemen bizi eta lan egiteko duten eskubidea, agintean daudenek ematen duten saria dela, eta ez justizia soziala.

**GARCIA, Mikel. *Argia*, 2021-07-20.
Egokitua**

6.

MILLENIALAK, BELAUNALDI AKITUA

Millennialak 2008ko atzeraldian sartu ziren lan-merkatuan, eta gaur egun, familia bat osatzen eta lanean kontsolidatzen aritu beharko luketenean, aurrera egin ezinik jarraitzen dute: soldata baxuekin, pandemiaren moduko kataklismo global bati aurre egin ezinik eta etorkizun zalantzarri baten aurrean. Hori dela eta, millennialak akituta daude, robot gisa lan egiteaz nekatuta, eta sare sozialekiko mendekotasunak itota.

Bizitza okerrera doan sentimendu orokortuak eraginda, erradikalizazio-prozesu batean daude murgilduta. Eta erradikalizazio hori bi norabidetan gertatzen ari da: alde batean, lana ez dela bizitzaren erdigunean kokatu behar uste dutenak daude, gizarteak ezin dituela robot gisa lan egiteko entrenatu; eta beste aldean, gizarte-ordena kolapsatzen ari dela sentitzen dutenak daude: beren lana desagertu izanaren errudunak etorkinak direla uste dutenak.

**BLANCO, Leticia. *El Mundo*, 2021-10-05.
Egokitua**

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «MAHASTIAK»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	B	C	D	A	E

Soberakoa	F
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ORDENA SOZIALA»

6.	B	7.	A	8.	B
9.	C	10.	B		